

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

2026ko landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko Zerga kobratzea

Nik, Igor Medina Isasa jauna, Barrundiako udaleko Alkateak

JAKINARAZTEN DUT

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga ondoko epean ordaindu ahal izango dira:

I. ORDAINTZEKO EPEA.

A) Borondatezko epea: 2026ko urriaren 1etik abenduaren 1era arte.

B) Betearazte aldia: 2026ko abenduaren 2tik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, premiamendu urrituzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta badute. Udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa banku bidez helbideratuta ez daukatenean udalak Kutxabank eta Laboral Kutxan dituen edozein kontutan dirua sartuta egingo dute ordainketa.

III. GOMENDIOAK.

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Barrundiako Udalari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ozaetan, 2026ko uztailaren 30ean

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA